

Goñerrin aurkitutako testuak (VI)

FRANTZISKO ONDARRA*

Aldizkari honetan¹ eman ditugu argitara Goñerrin aurkitutako zenbait testu, eta orain beste hiru eransten ditugu. Denak, beste zenbaitekin, bilduma bat egiten dute, bertan oraingoek 7.saila² osatzen dutela.

TESTUAK

Predikuak dira eta lau orriko paper multzotan daude, multzo bakoitzak testu bat dakarrela. Esker eta eskuinean ez dago bazterrik, dena dago testuak beterik. Paper neurrial hauek dira: 215 mm. luze eta 155 zabal. Ez dira hariz josiak izan. Ur marka hauek ikusten ditugu:

Hiru testuetan I FARGVES / NAVARRE.

2.ean, horretaz gainera, hiru zirkulu bata bestearen gainean, goikoaren barruan gurutze bat eta beste bat gainean, zirkuluen ezker eta eskuin esku antzeko irudiak eta FIN ta 1741 (-1 ote?).

3.ean 2.ean dagoenaren antzeko bat, baina bigarren gurutzea baino gorago koroa antzeko irudia liliori eta guzti. Zirkukuen ezker eta eskuin, 2.ean bezala.

* Euskaltzaindia.

1. ONDARRA, Frantzisko, 1989: "Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753)", *FLV* XXI, 53 (1989), 97-144; idem 1990: "Goñerrin aurkitutako lau euskal testu (XVIII. m.)", *FLV* XXII, 55 (1990), 73-121; idem 1991: "Goñerrin aurkitutako beste sei testu", *FLV* XXIII, 57 (1991), 131-168; idem 1992: "Goñerrin aurkitutako testuak (IV)", *FLV* XXIV, 59 (1992), 297-333.

2. ONDARRA, Frantzisko, 1981: "Goñibarko euskara XVIII. mendeko semoietan", *Euskeria* XXVI (1981-1), 349-365. Ik. 354 or.; idem 1981 b: "Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpena", *Euskeria* XXVI (1981-2), 633-649. Ik. 646.

NORK, NOIZ ETA NON

Egilea parrokuren bat izan daiteke. Irakurri hitz hauek: “Arquituco da yor Eliza ontan, ta nere puebloan daus errandezquenic, edo beaza goraza-quenic Jangoico omnipotentearen contra?”. Nafarroako herriren batean izan ziren emanak, darabilen euskara bertako bait da. XVIII. mendeko laugarren hamarkadadoak izan daitezke, ur marka eta grafiazko –Ik. *Grafia* atala– zenbait gauza hartzen ditugula kontuan, *dramagu* adizkia ahaztu gabe. 1825 urtean berriz predikatua 1. testua.

HIZKUNTZAREN INGURUAN

Grafia

Bokaletan, *v-* idatzi ohi du hitz hasieran *u*-ren ordez, eta hori bera gertatzen da zenbait aldiz diptongoaren bigarren osagaia denean: “vsatu” 1,4,1, “avllido” 2,1,1.

Kontsonanteetan, zenbait aldiz *-ti-* ikusi dugu, *-zi-* espero denean: “confirmatio” 3,4,2, “actione” 2,3,3, eta bost bat aldiz *ca*, *cu* aurkitu dugu *za*, *zu*-ren partez –beharbada zedilarekin³ zer ikusirik baduela: “icandu” 3,4,1, “permititucuen” 2,4,3.

Laburpenak ugari dira, batez ere silaba itxiko bokala galtzen dela, *bokala*-n kontsonantea desagertzen direla, hasierako *con-* silaba eta bukaerako *-an*, *-en*, *-in* zeinu bakar batekin adierazten direla.

Fonetika

Bokaletan, zenbait gauza gertatzen dira, ez ordea sistematikoki, baizik noizean behin bakarrik. Hola, aurki daitezke *ai* eta *ei* diptongoak *ei* eta *ai* bilakaturik: “orei”, “guecen” ‘gaitezen’ –ik. *Hiztegia* eta *Adizkitegia* atalak–, “dayes”, “Galdain”; *eu* berriz *au* bihurturik: “zaure” ‘zeure’, “zaude” ‘zeuden’; *ia* eta *ua* azkenik *ie* eta *ue* eginkik: “mies” 1,1,2, “zeuquete” ‘zeukaten’ 1,6,2.

Kontsonanteetan, hitz amaieran *-s* da ia beti: “agos” 1,1,2, eta zenbait hitzetan bokal elisioa gertatzen da: “atra”, “dramagu”, “drecho”, “obrena”, baina “liburu”.

Morfología

Deklinabidea. Ergatibo plurala gehienetan *-ek* da: “discipuloe” 3,4,1; datiboa plurala *-egi* da gehienetan: “lagunegui” 1,2,1; soziatiboa berriz *-ki*: “andiequi” 1,1,2, behin ikusi dugula *-kin*: “onequin” 2,3,3; inesiboan honako hau aurkitu dugu: “gañen” –ik. *Hiztegia*–.

Erakusleak hauek dira: *au*, *onek*, *ontan*, *abek* eta *ebek*; *ori*, *orreko*, *ortako*, *oiek*; *ura*, *arrek*, *aiek* –ik. *Hiztegia*–.

3. Egia esan, aipatu dugun gertakaria bakarrik aurkitu dugu *icandu* eta *cuen* adizkiekin, eta horiek askoz maizago ageri dira *izandu* eta *zuen(n)* idatzirik.

Izenordain pertsonalak honela dira: *ni*, *nere*, *neure*, *ene*; *zu*, *zure*, *zeure/zaure*, *zutas*; *gu*, *gure*, *guren* (sic *-n*), *gaurok*, *gauren*; *zuek*, *zuen*, *zen*, *zeuren/zaure* (sic *-e*) –ik. *Hiztegia*–.

Aditza. Iraganaldian beti galtzen da bukaerako *-n* kontsonantea: *zego*, *zequio*, *cigu*; geroaldia tajutzeko *-en* erabiltzen da *-n* bukaeradun aditzetan: *izanen*, *erranen*, *errain*, *egoin* –ik. *Adizkitegia*–.

Sintaxia

Noizean behin ematen dira fenomeno hauek: genitiboa atzetik, hala nola “fede arrena” 2,3,2; adjetiboa atzetik: “andrebait *piadosa*” 3,3,2; deklinabideko marka errepikatutik: “Maestruari soberanoari” 2,4,1; biak batean, hots, deklinabideko marka errepikatutik eta genitiboa atzetik: “aborrecimenturic ... becatuarenic” 3,6. Ik. beste egitura hauek ere: “beneficio avec *guciat*” 1,5,1; “cer becatari izan *beardu* munduan, vtzitzen duena gueroco?” 3,5.

Hiztegia

Ez dugu aurkitu Larramendiren aztarnarik. Bestalde, atal honetan aipatzen ditugun berbak oso ezagun diren hitzen aldaera eta sinonimoak besterik ez dira. Hona hemen: *aniz*, *arkindu*, *aurrean*, *bekatari/bekatore*, *bekela/bezala/bezela*, *edeki* ‘kendu’, *eramo*, *eren* ‘arantza’, *fite*, *geago*, *idugil/irugi* ‘eduki’, *isigin/itsigil/itsagi* ‘irazeki’, *opatu* ‘aurkitu’, *oian* ‘mendi’ eta *oreitu* ‘oroitu’.

Adizkitegia

Mendebaleko euskalkietako fenomenoren bat ageri da, eta hau da: “*garan*”, “*garala*”, baina “*garen*”, “*dirala*”, “*ninzala*”. Ik. ere “*dramagu*”, *dauen* ‘izan dezan’, *dezazkik*, ‘ditzakek’ eta *zekio* ‘zitzaison’.

GURE LANA

Orrialdeak guk zenbatuak dira, zenbaturik gabe zeudelarik. Paragraforen bat guk antolatua izan da, batez ere latinezko hasiera pasarteren bat dagoenean.


Laburturik dauden hitzak deslaburtu egin ditugu eta guk sartutako hizkiak kortxete barruan eman. Latinezkoetan dauden laburpenak ere deslaburtu egin ditugu, baina kortxeterik erabili gabe. Latinezkoetan ageri diren okerrak zuzendu egin ditugu eta orrialde pelo oharretako batean zuzenketa guzien berri eman.

Hiztegia atalean ez ditugu sartu hitz guziak, *Adizkitegia* atalean ordea adizki guziak sartzen saiatu gara.

Laburdurak: a. aditza, ad. adberbioa, adj. adjetiboa, d. determinatzialea, gazt. gaztelaniaz, i. izena, ik. ikus, ing. inglesez, io. izenordaina, j. juntagailua, lat. latinez, p. posposizioa.

1. TESTUA

QUIS¹ EX VOBIS ARGUET ME DE PECCATO? SI VERITATEM DICO
VOBIS QUARE NON CREDITIS MIHI?² JOANNIS CAP. 8



Cer novedade da au, gure beguiac ecust[e]ndutena, egungo egunean
 nere catholico fielac elizan: vesticen ditu bere aldare s[a]nduac lutos, estali-
 cenditu guruze s[a]nduac belo, edo cubierta b[e]llcuqui debecacendu errezu
 divinoan errandezaten bere Ministroac Gloria Patri, ceñequi alabacen baita

1. Goiko bazterreko ezker zokoon 1825 dio.
2. Latinezko pasarte honetan zenbait hitz laburturik eskuidatzian (hemendik aurrera E). Hori bera latinezko pasarte gehienetan.

Trintate Jaun poderosoa debecacendu invocadadien³ s[a]nduen int[e]rcesioa,edo mediaoia egun arte[an] escatu duguna gauren oficioet[an], ta errezuet[an]. Cer da au nere fielac, Cer misterio enzerracendu gure eliza ama s[a]nduar[en] disposicionec, eta ordenanza onec? acaso izanenda mostracea gatic, ta eracus-teagatic guri bere humeogui sentim[e]ntu eta dolore, ta pena andie artu bear-duguna gaur[en] viozean Jesu [Chris]to gur[en]⁴ Jaunar[en] pasio, ta erioze s[a]nduarena, ceinegui emat[e]ndio pr[incipi]lo eg[u]ngo egune[an] Eliza ama s[a]nduec; eta Rup[e]rtoc dion bezela, azoco egune[an] egu[i]nzute⁵ Junta, edo [Con]cilio sacrificagoat Judio infle]rnaleayec, non [con]denatu baizute eriozera inocentemente batere culparic bague, gure Jesus ona s[a]ntidadea bera; Ea bada nere catholicoac⁶. dio Paulinoc, eztitugula s[e]ntitu bear aimble]rre Jesusen penac, baicic negar, ta penit[e]ncia eguin beardugula gaur[en] becatues, ta culpes bada gure culpac dira causa, ta motivo Jesu Christor[en]⁷ pasio, ta eriozearena.

Procuratudu gure eliza ama s[a]nduec garizuma s[a]ndu ont[an] cariño andiequi, becatorea [con]vertitu dadien J[a]n[goi]coar[en]⁸ legue s[a]ndura penit[e]ncia eguindezan bere culpas, becatues, ta ofle]nsa guicies, aitudituen desengañoequi, ta oyuequi, icust[e]ndu orrengatic, becatorea dagola sorra desengañoetara, eta eztula⁹ [con]vertitu nai, eta p[er]severatu naiduela reb[e]lde, ta f[ue]rte becatuen, eztuela apartatu nai comunicacio charretic andre, edo emacumearen ganic torpezan ta amore desordenatu bate[an] errezen ta abrasacen naiduela egon ta vici estado miserablean eztuela b[e]rreac restitucioneguinai bere Javeari, eztuela b[e]rreac satisfaccio, edo barcacionic escatunai bere proximo lagunari, J[a]n[goi]coac manazenduen bezela bere mandam[en]tu s[a]nduen, eztiola berceac izuli nai bere proximo lagunari fama edo honrra, cein quendu baicio injustam[en]te murmuracioarequi, eztuela berceac excesoric eguin bear Gulen edatean eta SSatean bar[u]tu¹⁰ bearduela agos ezpadare mies frenoa eazar[zen] di]ola¹⁰ [2] bere mi gaistoari ez duela [maldicioneguin bear]¹⁰ ez proximo laguneri, eta ez haciendari. eztuela Juram[en]turic vano[an], edo guezurraf[en] gañe[an] eguiimbear, ezdugula yori gaicic deseatu bear, eta ez amenazaric eguin, eta eztugula scandaloric eman bear ta occasioric proximo lagunegui becatuen erorzeco, Gezurric¹¹ eztugula erran bear, baicic egua sinceridadearequi. Eta enfin predicatu digu gure Eliza Ama S[a]nduac bap-drac cumplitu bearduela bere obligacioarequi, ta estadoarequi servizazeco J[a]n[goi]coa, ta bere a[nim]a salvaceco, ta gloria emateco J[a]n[goi]coari; icusi-

3. “imovoca-” dio, “invoca-” esan beharrean.

4. Normalki “gauren” ageri da.

5. Ia beti -un edo -um idazten du eguin hitzean, hizki horien gainean i bokalari dagokion puntua ipuintzen duela.

6. E “chatholicoac”.

7. Normalki *Christo* laburturik ematen du, bakan-bakan osorik.

8. Ia beti laburturik hitz hau, behin aurkitu dugula hasierako “Jaun-” eta beste behin “Jaun-”, eta hiru aldiz erdiko -goi- testuan.

9. Hemen “eztula” eta hamar bat hitz beherago “eztuela”.

10. Papera hautsirik.

11. “Gezurric”.

ric bada Eliza ama s[a]nduec desengaño au manifestacendigu egungo egune[an] aldaretaco señale visibleabequi gaur[en] estadu miserablea, eta ezparimbadire asqui izan ore[i]art[e]co¹² oyuec, ta desengañoec gure bearrietañ mellaric eguiñ eztituztenac, mugitu gaizan siquiera, icust[e]nditugula ceremonia tristeavec gaur[en] veguiñ aurre[an], penit[e]ntia¹³ eguitera, ta negar eguitera gauren charqueries ta becatues proprieos. ala eracusiciote Jerusalengo alabegui Calbarioco oyanera cidoayenel[an] guregatic padecicen aimb[e]rreza aſr[e]nta, aimb[e]rreza azote, escarnio ta pena eta vizia ematera arbole batean Guruzebatean; erranciote gure Jesusec icasizituenean, ceudela lastimaturic arr[en] trabajes. Jerusalengo alabac: negar eguiñzaze zaure becatues bada zuen becatuec dire motivo¹⁴ ta Ca[us]a ni orla trataceco izanic ain inocentea, ta batere culpabaguecoa.

Errat[e]ndu bada gure Eliza ama s[a]nduac: nere semeac viozecoac: norc q[ue]nducio Jesu [Chris]to nere Esposoari, eta zuen gucien Aita onari vicia? ezira izandu motivo ta ca[us]a zuen becatuac? eguiada *mortuus est propter sceleram nostram* dió Apostol S[a]n Pauloc ilzela gure becatu[en] gatic sob[e]rbia izanduze coronatu zuena gure Jesus erren puntaagudoequi corona ezarciotene[an] buru[an]. Avariciac enclavatu zitue ar[en]¹⁵ escuac Gurucean. Ijuriaco becatu ciquiñac betezue arr[en] gorpuza llagas ta eridas azotequi. irac amarratu zue, ta lotu zue arbolebategui: gure embidiac atravesatucio bere vioza Lanza, edo picabatequi; gulasco becatuac emancio edatera ozpin, ta quedarre; perezac zulatucizquio ilze gogorrequi oīñ bedeiquetuayec. Eguit[e]ndugun¹⁶ becatu grave, edo mortale gucietan, errat[e]ndu Apostoloac, izulzendugula guru[ce]batean t[orm]entacera¹⁷ [Chris]to gure Redemptorea. *rursum crucifigentes*.

[3] Orr[en]gatic errat[e]ndu [Chris]tor[en] Mag[es]tadeac egungo evangelio s[a]nduan probacenduela, ta manifestacenduela bere inocencia, eta padedicen badu gustoso ta borondate osoarequi aimb[e]rreza pena, eta eriozea eztela bere becatuengatic, baicic gure culpeengatic, ceñec ocasionalu baizue. Errat[e]ndiote fariseoegui. Nor arquinducoda¹⁸ zuen¹⁹ ertean edo compañian ni reprenditu, edo convencitu nazaquena becatu eguindutela, edo quebrantitudutela J[a]n[goi]coar[en] leguea, Aita Et[e]rnoar[en] leguea? Cergatic eznauze siñestacen, predicacen baizet egua[?] J[a]n[goikoarena]²⁰ denac, errat[e]ndu Maestru Soberanoac, aicenditu frutu ta provechuarequi nere izac, eta orren-

12. Normalki “orai” edo “orei” ageri da. Hemen bukaerako -i gabe, okerrez edo. Ik. 2. testuko 37. oharra.

13. Horrela dio: “penit[e]ntia”.

14. “motivo” edo ematen du dagoela, baina hurrengo paragrafoaren hasieran “motivo ta ca[us]a” dago.

15. Zazpi bat hitz beherago “arr[en]”.

16. E “eguinenten” irakurtzen dugu, laburtua deslaburturik.

17. Papera hautsirik.

18. E. “arqinduco-”, laburgailua gainean.

19. E “zuer”.

20. Erdiko -goi- laburtu gabe.

gatic zuec eztituze²¹ aicen cerengatic eztuzen izan nai J[a]n[goi]coar[en] humeac, baicic diabruarenac. *qui ex Deo est verba Dei audit.* &^a.

Discurrizagun nere fielac aprovechatu garaden garizuma s[a]nduont[an] desengañoequi apartatu garaden ocasiotic becatutic t[ol]rpeza,edo amore desordenatutic, eta ezautuco dugu, J[a]ngol[ico]lar[en] humeac,edo Diabruarenac garaden. Ereguicen²², ta negarra eguiten pintacenditu Erregue Davidec Apostolo S[a]nduec predicacen zuten demboran: *Euntes²³ ibant et flebant.* eta explicacendu Doctore batec textoau ereiten zutela semilla ta Granoa doctrina christianarena²⁴ baña negar eguit[e]nzutela, icusiric ezutela fruturic atracen cerengatic ayeç predicacenzuten g[e]nde ayen viozac zaudela²⁵ lur secoa bequela frutu emateco esperanzaric bague, ta ceudela arria bequela gogorrac. azquene[an] def[e]ndatze gure Jesus farisioen murmuraciotic, ta retiratze estalicenzela ayen beguietatic, eta reparacendu S[a]n Vicente Ferrerec ayen beguietatic sollic apartatuzela, baña ez bere Ama S[antissim]a ganic, ta bere discipuloenganic²⁶. eztadien bada gure Jesus ona retiratu, ta apar[tal]tu gure ganic adiceco gure lastimac ta negarrac, solicitazagun, ta escatuzogun, nere fielac, ezdezagula faltatu bere Ama S[antissim]ar[en] intercesioa ta podorea. Errat[e]ndiogula ave maria.

QUIS EX VOBIS ARGUET ME DE PECCATO. JOANNIS CAP. 8

Nor arquinducoda zuen erte[an] reprendituco nauena becatu eguideude-la, eta [con]vencituco nau? Onla nere fielac galdeiten cioten [Chris]to gure Jaunac Fariseoeg[ui] eta modu ont[an] bere[an] galdeit[e]ndu guizon guciei, eta specialquiro christio fiel guciegui: *quis ex vobis arguet me.* Arquincenda yyor²⁷ [4] cargu eguidezaquedenic, nor atrevitucoda ni [con]vincicera *quis convincet?* examinazaze nere vicia, repasatu zaze nere vici modua, errat[e]ncio-te farisioequi, eta icusizaze, arquincen bauze accioneric den chiquienic reprehenditu deitequenic. *disquirite vitam meam* excrivizenue S[a]n Ciriloc, *verba, et opera mea discutite.* ez da cosa rara, ta maravillaceco, errat[e]ndu S[a]n Gregorioc, alduque]lariquen [Chri]sto gure Red[e]lmptoreac obratu ta egum maravilla, ta prodigo aniz comprobaceco bere inocencia, ta s[al]ntidadea exponitu dezan probaceco bere vicia bere exay, ta enemigoen examinera, edo Juiciora. ha cer exemploa poderoso²⁸ m[un]ducoendaco²⁹. Eztu vsatu, ta valietu nai

21. Ez dugu ongi ikusten lehenbiziko z hori, s izan litekeela. Normalki z egiten du egileak.

22. Ez dugu ongi ikusten bigarren e bokala, a ere irakurri izan dugula. Bizpahiru lerro beherago *ereiten*.

23. E “Eunter”. Latinezko okerrok ikusi ditugu: “dui” 5, 2; “demonium” 6, 2; “sagittae” 6, 2.

24. E “christianerena”.

25. Hemen “zaudela” eta bederatzi bar hitz beherago “ceudela”.

26. E “discipuloenganic”.

27. Bi yy- hasieran.

28. Normalki “exempla poderoso” espero da.

29. E hiru zatitan partitutic: *m[un]duco en daco*.

bere podoreas, baicic naidu sarri arracioar[en] examinara, eracusteco guri nere fielac, nola naurritu bearditugun gaur[en] actioneac³⁰ ta obrac arracioareq[ui] prud[e]ntiarequi³¹, Justiciarequi, eta ez podorearequi, eta magestadearequi. *non deditnatur Dominus ex ratione ostendere peccatorem non esse baña gure Jaun ta Jaung[oi]coa*³²: cer arracio³³, cer argum[en]tuac dacazquique ala mailiciac, nola ignoranciac guizonarenac berorr[en] inocenciar[en] [con]tra beror[en]³⁴ s[a]ntidadear[en] [con]tra, ta berorr[en] saviduri[an] [con]tra. Cer beguic linzeago, ta agudoago barimbadirere embidiarequi arquinduko dute faltaric beror[en] izete[an], ta obret[an].

Gurequi catholicoac minzazenda egungo egune[an] [Chris]to *quis ex vobis*. nor cen arte[an] arquinduko da cargu eguindezquedenic, nor quejatuco da faltatu zayola bere a[nim]a salvaceco bearduen gauzaric, norc erranendiria ni izan ninzala causa, pasaturic passio, ta eriocea mundu gucien salvaceagatic: *quis ex vobis*: O nere Jangoicoa³⁵ iyorquere yorquere³⁶, errat[e]ndu S[a]n Antonio de Paduac ezim errandezaquela eguiarequi, ezim quejatu daitequela, ezim reprendituzaquela Jangoicoaren provid[enci]a *vere nullus*. Verdaderamente yorquere cergatic Jangoicoaren amoreac ezue (vzi)³⁷ gauzaric necesario, ta preciso cenic eguiteco gure provechuendaco, nona naidugun valiatu arr[en] auxilioequi ta gra[cil]arequi, ta ortaco (vzi) cigu libertadea elegiceco naiduguna *reliquit homines in manu consilij sui*. Aditu bezate nola galdeiten-duen Isayesen agos: *quid est quod debui ultra facere vinae meae, et non feci ei?* Cer eguin bearnue gueago guizonarendaco, eta ez³⁸ paitut eguin? Emanio izatea, [con]servatitudut ta alimentatitudut munduan, humillatu ninza guizon eguiterra, pasatu [5] ninza vicia ematera maquillabate[an] arr[en]gatic, sartunue eliz[an] Batayoar[en] medios, esperatu diot. *quid ultra*. eguin bearnue gueago [con]tatuzazquigun Jangoicoaren avisoac ta inspiracioac ya misionet[an], ya enf[e]rmedadetan, ya proximo lagunaren escarmentuarequi, arr[en] p[le]nsam[en]tuac, arr[en] izac, ta arr[en] [con]seju onac aitudugunac³⁹, exemplo onac vegui[en] aurre[an] irugui ditugunac: guci guciac izanduzira ordenatuec, ta preventiectec⁴⁰ nere provid[eni]cia dela causa, ta motivo facilitaceco gueago gure anim[en] salvacioa, *quid ultra*. Cemba peligroetatic apartatu

30. Horrela: "actioneac". Ik. 13. oharra.

31. Horrela: "prudentiarequi".

32. Hemen "Jaung[oi]coa". Ik. 8. oharra.

33. E "aracio".

34. Hemen "beror[en]", berriz ere hola pargrafoaren amaiaren, baina "berorr[en]" bi aldiz paragrafo honetan bertan.

35. E laburturik. Hemendik aurrera ez dugu kortexeterik ipintzen hitz hau deslaburtu dugula adierazteko. Ik. 8. oharra.

36. E errepikatutik, baina hasierako *i-* gabe.

37. E "vizi" eta berdin bi bat lerro beherago, baina "vzzizen" 6,2 orrialde-paragrafoetan.

38. E errepikatutik.

39. Sei hitz beherago "ditugunac".

40. E "preventiecte".

gaitu [Chris]tor[en] Mag[esta]deac guc estaquigula, cemba t[e]ntacioetatic guardatu, ta libratu gaitu, cemba favore, ta merchede eguindigu. favoreavec, ta beneficioavec guiac estalien egon[en]dira egun andia vra etorri arteo Juicioco eguneraño. Arquituco da yor Eliza ont[an], ta nere puebloan daus errandezaquenic, edo beaza gorazaquenic⁴¹ Jangoico o[mn]lipot[e]ntear[en] [con]tra? Jauna eguias diot, ta viozetic eztela yor ere arq[u]nzen, ta [con]fusiones, ta [con]f[u]ndituric gaudela emengauden gucioc or[en]⁴² carguetara, eta orrec eguit[e]ndizquigun favoretara, eta humi[l]dade andiarequi escacendiogu⁴³ emendic aurrera daucala misericordia gutas, ta [con]fesacendugu viozetic munduontaco gauza guiac ordenaturic, ta disponituric daudela choil ongi orr[en] aldetic, ta partetic orr[en] provid[e]ncia andiarequi, ta infinitoarequi. *omnia parata.*

Cerda bada au nere Chatholicoac? ezpaldimbada yor arquinzen arracioarequi quejatu daiquenic, certaco galdeit[e]ndu [Chris]tor[en] Mag[esta]deac manera ont[an]. *quis ex vobis?* ea aitu bezate, nere Juicio[an] berceric da, gure Jaunac pret[e]lendicenduena⁴⁴ Galdainzue ocasiobates Zebedeon semeegui, escatuzezatela naizutena, eta ber[en] amar[en] [con]se]ntim[en]tuarequi escatuzute gauza bat ayec aniz deseacen zutena. *quid vultis?* Cer naiduze? errat[e]ndioite. Ezequie bada Jangoicoac? claro dago bazequiela errat[e]ndu S[a]n Ju[an] [Chris]tostomoc, baña nai izanduzue pregunta onequi descubritu ay[en] llaga aplicaceco medecina [con]venientea aicendituela cer escacendio-ten Jangoicoari. *non ignorans certe, dum eos respondere cogat, et vlcus detegat, et ita medicamenta apponat.* bada lomismo discurritu, ta p[el]nsatu beardugu egungo evangelio s[al]nduen diona [Chris]tor[en] Mag[esta]deac. Galdeit[e]ndu yor quejanteric [6] arr[en] [con]tra, aiceagatic gure nedadeac, eta repondacendigula ayetara [con]vencituric vstengaituela, orla moduonequi replicaric bague amazagula, ta servizazagula J[an]goicoa.

Baña injuria gueago eguit[e]ndioite [Chris]tor[en] mag[esta]deari fariseo obstinatu ayec predicacen dizquioite [Chris]tor[en] Mag[estadea]c eguiac Cerucoac *si veritatem &* eta pagu onengatic daicendiote Samaritano, ta endemoniaturic dagola. *Samaritanus es tu, et daemonium habes* Farisioec zeuquete errealdadean demonioa, eta cego ay[en] viocean, eta Jesuchristori botacen diote, edo atribuicendiote dauquela demonioa. beti icusico dute mi gaistoeck notacen ditustela, ta reparacen ditustela ta contacenditustela Juicioric, ta capacidaderic bague b[e]rcer[en] faltac, leveac badi[m]badirare, eta izanic ayenac verdaderoac, eta eguiac, daude itsuturic ezauzeco⁴⁵ bere faltac ta becatuac. Enemistaturic⁴⁶ zaude fariseoac Jesuchristor[en] mag[esta]dearequi, cergatic eguiak predicacenciot[en], ta eguiak nere fielac gauza zorroza da, ta amargazeniote, eta eracusteagatic arr[en]

41. Hiru bat hitz gorago “-dezaquenic”.

42. Hemen “orr[en]” eta hiru hitz aurrerago “orrec”.

43. E “digu”.

44. E “prætendicen-”, *æ* latinezko diptongoa adierazteko erabiltzen duen laburdurarekin.

45. E “euauzeco”.

46. E “Enemistatuturic”.

[contra zeuqueten inquinia ta venganza, erranziote bere mi maldicienteayequi *deamonium habes* demonioa zeuquela bere bait[an], aniz malicia cego enemigoaven vioce[an], eta ezauz[en] zute aniz s[e]ntitu bearzuela [Chri]stoc gure Red[e]mptoreac dicho vra, cergicatic guizon honratubatendaco ezta punalada an-diagoric, mi gaistoat baño. ez [con]t[e]ntic atrevim[en]tuoneq[ui] botazituste es-cuac arriecc arzecc lurretic tiraceco Jesu [Chris]tor[en] Mag[esta]deari. *tulerunt lapides &c.* eta indignaturic ayen ceguedadeas, castigatu citue ausentacen zela ayenganic, ta vzzisen zituela beren estado miserablean. *Jesus auten abscondit se,* cergicatic becatorea aprovechacen ezdena avisoequi ta des[en]gañoequi, esperatu dizaq[ue] Juez rigurosoarr[en] castigoac. Galdait[e]ndu Erregue Davidec. cer dañu eguit[e]nduten mi maldicioguillenac, ta murmurazalenac. *quid detur tibi, aut quid apponatur tibi ad linguam dolosam* eta resp[ues]ta dio⁴⁷. *sagittae potentis ac-cutae* mi gaistoat dela aniz flecha, edo ezpata p[u]nta bequela. bada mia bat bada nola comparatu daiteque aniz ezpatequi cenequi min aniz [7] eguin baitatequi⁴⁸, cerengatic bat dela eguit[e]ndu erida aniz, ezpat[a] batec golpe bates ezim eritu zaque bat baño gueago, baña mi gaisto atec, apenas arquindudo da, ez dezan eritu golpebate[s] aniz p[e]rsona, eta eguin of[e]nsa aniz, bada ona ta gaiza dramagu⁴⁹ nere fielac mian icaszagun governacen, eta erranbeza Davidec mi gaistoat [com]paracendela aniz ezpaten p[u]ntaq[ui]⁵⁰ eta izanic bat sollic ofe]ndicenditu proximo lagun[en] famac ta honrac, eta vicioau p[e]rsona bazuendaco izat[e]nda egunorosco oguia, ezdutela cargacen [con]sideracioa ofe]ndizendutela gravemente Jangoicoaren b[o]ndadea, eta proximo laguna.

Cemba aldis becatorea degollacenduzu, Erregue Erodesec bequela, ta des-precioacenduzu Jangoicoaren iza, Jangoicoaren mag[estal]deac emat[e]ndizu zeure⁵¹ viocean inspiracio aniz, eta guziec gueldicendire illic zure pechoan, errat[e]ndizu Predicador[en] agos, ta [con]fesor[en] agos eguinazula penite[nci]a, eta Erodesec bequela eztuzu casoric eguiten zaure animes. bada aseguracendizut, ezparimbada zure viocean bearritic adiceco Jangoicoaren izac, eta arr[en] doctrina, ez da Jangoicoaren bait[an] arquituco bearritic adice-co zu zeure necesidaden escacendiozun[an] bere gr[aci]a ta misericordia eta desamparatuco zaitu; atrazaite bada becatutic utcizazu vide macurrori, eta berzela Jangoicoac izulicodizu bere aurpeguaia, eta vicico zarade mundu ont[an] aren⁵² desgr[aci]an ta indignacio[an], eta b[e]rre mundu[an] malograto-co duzu gloria cefneetaco zinduen dr[ec]ho⁵³ guardatu bazinditu arr[en] m[a]ndam[en]tu s[a]nduac. dembora dauquezu orai eta [con]vertitu zaite vioz verdaderoatequi ta escazozu barcacioa becatu guciena, ta misericordia.

47. E eta resp[ues]ta dio azpimarraturik.

48. Ez da ongi ikusten *e* bokala, beharbada *a* ere izan liteke. Bestalde, espero dena “daiteque” da, gure ustez.

49. Uste dugu *dramagu* ez dagoela laburturik, falta den *a* silaba irekian egonen bait zen eta laburturik dauden bokalak silaba itxietan egon ohi dira.

50. Lehenbizi “puntaqui” eta gero (?) “puntequi” (?). Ik. 7 orrialdearen amaieran “aniz ezpatequi”, mugagabea.

51. Hemen “zeure”, berriz ere “zeure” ta “zaure” paragrafo honetan.

52. Hemen “aren” eta gero “arr[en]”.

53. Uste dugu “drecho” irakurri bahar dela. Ik. 49. oharra.

2. TESTUA

DUCTUS¹ EST JESUS IN DESERTUM Ā SPIRITU, UT TENTARETUR
 Ā DIABOLO, ET CUM JEJUNASSET QUADRAGINTA DIEBUS, ET
 QUADRAGINTA NOCTIBUS POSTEA EXURIIT² MATH. 4

Josseph casto, eta piadoso vra goizetic asize ejercitacen bere piedadea eta dió oraculo divinoac ceramala vere anayen arropa, edo sust[e]ntoa ceñec baizaude guardacen ber[en] Aitar[en] ganadoa; *opatuzuela manera ont[an] guizonbatuc*, zevillela *videa galduric Siquengo campoet[an]*, edo *Mendiet[an]* choil afluxuric, eta desconsolaturic vider[an]te gave *videa vts eguiñic davillena bezala*, eta solo aizenduela *chacurr[en] avllido*, edo arguido surr[en]bazuec: *invenit eum vir errantem in agro*: eta iduguicenduela piedade, eta lastima Josseph pobreas, icusiric dela aurra, eta doaiela *vastimentus*, eta *alimentus* beteric, galdeit[e]ndió, ya nora doaien, ya cer billacenduen: Josseph[e]c³ erresp[ol]ndació. *fratres meos quaero*. nevre anaiac billacenditut, eta ayen deseotec, eta affectoac socorrizeco dacazquitenac naravillate *g[a]lduric modu*, edo manera *ont[an]*, desierto edo soledade abet[an].

Egungo egune[an], nere Catolico⁴ fielac, davila [Chris]to gure Reemptorea desierto[an] peleacen, batallacen, eta luchacen Satanas demonioarequi, eta onec du osadia, ta atrevimentu irur aldis acrometiceco [Chris]to gure Jauneri (eguia da beti atraze garaituric demonioa infl[er]nucoa) ya sob[e]rbiarequi, ya avarizia-requi, ya vanagloriarequi: bada jaquindezagun orai norden Jangoicoa⁵, eta nor den demonioa: Jangoicoa da omnipot[e]ntia⁶ bera, gucia dezaquena, cergicatic gauza guciec creatuzitue, eta da ayen Jaun ta Jave. ala [con]fesacendugu Catholico⁷ gucioc, eta ala ezauzendugu gaur[en] ent[e]ndam[en]tu[et]an fedear[en] medios, eta virtutes. demonioa da munduar[en] creaturaric abatituena, desprecietuena, desecharuena, eta desventuratuena, cergicatic en fin baingoas err[an]dezaden da demonioa creatu[ra] infeliz [con]denatuat⁸. bada izanic orla demonioa, cergicatic emat[e]ndio Jangoico o[mn]lip[olt[e]nteac potestade irur aldis acrometiceco arr[e]n divina mag[estade]a eze ove, eta alab[a]nza guejago⁹ lembiziko aldi[an] egostea paseazera, eta ez ematea virtuteric, indarric, edo valoreric gueago acometaceco¹⁰? Ez nere fielac : bada cer nai digu em[an] Jangoicoac ent[e]ndazera, eta¹¹ eracustera enseñanza, edo p[e]rmisio onequi, edo emate onequi aimb[e]rre escu, edo Podore demoniari.

1. Orria alde batetik bakarrik zenbaturik. Besteak, berdin.

2. E “esurit”. Latinezko okerrok ikusi ditugu: “mitere” 2,2; “difert” 3,2; “hec” 3,3; “potuisse” 4,1; “aserunt” 4,1; “amisarum” 5,1.

3. E “Jossephc”. Baliteke *Josek* eta ez *Josefek* irakurri behar izatea.

4. E “Chatolico”.

5. Ik. 1. testuko 8. oharra.

6. Horrela: “omnipot[e]ntia”.

7. E “Catholico”.

8. Horrela: “[con]denatuat”.

9. Hemen “guejago” eta hamaika hitz beherago “gueago”.

10. Paragrafo honetan bi aldiz “ac[c]ometiceco”.

11. Errepikaturik eta.

[2] Galdaiten baguindio Jangoicoari o[mn]ipot[e]nteari, ya cer naizu[en] emanas aimb[e]rze escu, eta podore demonioari, eta p[e]rmiticeas irur aldis t[e]ntacezan¹²: cer resp[ues]ta emanenliguq[ue]? Claro dago resp[lo]ndatuco liguq[ue]la, (nai liguq[ue]la eracusi J[osse]ph[e]c bequela *fratres meos, aut filios meos quaero*, billacenditut nere semeac, eta nere anaiac, eta t[e]ntacio onequi naidiotet eracusi, nola resistitu beardioten ber[en] enemigo, edo esayeri, bapedadra daqui nor dituen bere esaiac, bada a[nim]a gaisoar[en] esaiac dire mundua, demonioa, eta araguia, eta eguindezat[en] Juicio au, baldim demonioa atrebizen bada Jangoico o[mn]ipolt[e]ntear[en] [con]tra t[e]ntacera; cer milagro da atrebidadienene [con]tra izanic ni ain becatari andia, atrevitu, eta lotsabaguea¹³ bezela¹⁴, eta oyen gucion [con]tra ain infeliz, eta desdichetuec bezala? medio, eta erremedioric obrena da Ama S[antissim]jari escacea vere gr[aci]a errat[e]ndiogularican Aingueruarequi ave maria.

DUCTUS EST JESUS IN DESERTUM A SPIRITU &^a. CAPIAM CIT.

Baldimbadirudi eze Jangoicoa o[mn]ip[oten]tea retirac[en], eta desviacion dela guizonar[en] gandic cembait aldis, arr[en] desvioleta, eta retiroac izat[e]ndirade alagoac, ta carinoac guizonar[en]daco. Refericen dute [Chris]tor[en] Coroniste sagraduec: Cananeco andrebait atrazela bere erritic Ja[lun] Soberanoar[en] ace[an] Medicu soberanoa den bequela otoiz eguitera, eta suplicacera, curatu, edo sanazezon alaba endemoniatubat. encontratu zue gure Jauna eta suplica, lastima, eta negar andiequi escatucio Salvadoreari bere alabar[en] recobrua, edo osasuna; negarrec obligatu badezaquetera, eta enfin andreenec, eguit[e]ndutelen[an] gauza, edo motivo Justo, eta dec[en]teengatic. Enfin eze apiadatu Jangoicoa andre on[en] lastimes, ta negarres, eta eguit[en] zitue ain andiac, eze obligatu zitue Apostolo S[a]nduac escacera gure Jaunari, ez ar[en] negarrac, eta lastimac adizeagatic, zeuc[an] onzat, curacesas ar[en] alaba endemoniatua eta ocasiaoart[an] bere discipulolen] otoyces ezue nai iz[an]du casoric egui[in], eta ez curatu. Baña andre p[lo]rfiatuari err[an]cio [Chris]toc (alparecer p[le]rsona estrañoa, eta esquiboa bezela): *non est bonum sumere panem filiorum, et mitttere canibus Math. 19* Ezta ongi edequicea semegui agotic oguia, eta egosteak chacurregui. Dio Adam[an]cioc: Xauna baldimbagaude int[e]ncioareq[ui] esper[an]zareq[ui] eta borondatearequi eguiteco andreonec aimb[e]rze negarreq[ui] escazen zu[en] vra, baita bere alabar[en] osasuna, icanic[an]¹⁵ ain piadosoa, eta benignoa; nola errespol[ndac]en]diozu ain pisu, eta cruel? Dio Origenesec: eze edoceñec [3] errainduela, eze dela desvioleta, eta desdeñoa [Chris]toc Cananeco andreareq[ui] ejecutac[en], ta vsacenduena.

Baña cer eguinzu [Chris]toc dilatareas curacea, ta remediacea? Cer; ensalzazea, andicea, exageracea, ta eracustea andreonec Jangoicoaren bait[an]

12. E “-cean”.

13. Autoreak berak gero erantsia *is* digramako *t* kontsonantea.

14. Hemen “bezela”, bederatzi hitz beherago “bezala” eta hurrengo paragrafoan “bequela”.

15. Horrela: “icanic[an]”, eta hirugarren testuan “icandu” behin, “izan” eta “izandu” eraibili ohi dituela. Goñiko 41. testuan *iquen* beti.

zauq[ue]n fedea, cergatic dem[an]da, ta resp[ues]ta ayet[an] zeuden arte[an] ezautuzue Jangoico o[mn]ip[oten]teac, andre onec arr[en] bait[an] zeuc[an] fedea andia. Eta aimble[r]ze eze arr[en] divina mag[estade]ac bere agoz err[an] izanducio feede arrena exagerazenzuela, eta ponderazen: *Ô mulier magna est enim fides tua* Andrea ire fedea dun andia: [con]que da alab[al]nzaric, ta aplausoric desseatu aldaitequen andiena. Dio Origenesec: *nihil proficiunt, nec ipsi Apostoli sugerentes, velut medicus differt magis curam, et exulcerat vulnus, et potestatem suam quadam arte excusat, ut latentia ponderet sacramenta.* Barber batec, delariquen sabioa eguit[e]ndu eridabat dembaño andiago obequiago, ta fiteago curaceco erida; eta ent[en]dacen ezduenac facultade[an], vstedu erida vra ezarrizenduela calida de gistoago[an] len cegon baño, eta izat[e]nda al reves cergatic cembatenas vicera, edo erida eguit[e]nzaion erieri andiago, eta garviago, obequiago, ta fiteago curacenda: *exulcerat vulnus.* Andreau Jangoicoari oyus, ta negarres asice[an], bereala curatu bazue Jangoico o[mn]ipotent[en]teac arr[en] alaba spiritu maligno equi cegonvra, ezquindue experimentatuco ta Jaquiñen arr[en] feedea firmea, ta andia, baña nola dilatatu baizequio curacea enf[e]rmendadeartatic experim[en]tatuzue aren feede firme vra; ta ala gure Jaunar[en] retiroac, ta desvioac, eta¹⁶ Juatea desiertora dirade regaloac, ta carinoac guretaco.

Allegatu ze vng[ue]ndu costoso, ta olorosoequi Maria Magdalena Jangoico o[mn]ip[ot]e[n]tear[en]¹⁷ burua ta oñ[en] regacera edo vngicera, eta animb[e]rre vrr[in], edo fragancia aditu zutene[an] vng[ue]ndu preciosoorrec despeicenzuela beneric vntace[an] buru, ta oin sagratuayec. diote Evangelistec, ece Apostoloec murmuracen zutela, ta emparticular Judasec: *Videntes autem discipuli indignati sunt dicentes, ad quid perditio haec? potuit enim istud venundari multo, et dari pauperibus.* Cer gastu sup[e]rflua¹⁸, edo excesivoa da au? Ece ove por lo menos salcea aroma, ta vng[ue]ndu preciosabec irur eun erreale[an], ta ematea pobrei? Galdet[e]ndu¹⁹ Doctorebatec²⁰: cergatic Jangoico o[mn]ipotent[en]teac p[e]rmititucu[en]²¹ Apostolo[en] murmuracioa, ar[en] divina Mag[estade]ac alabazen duene[an]? ta resp[o]ndacendu gueago honrraceagatic²² dela murmuracioau. Bada errate onequin honrratuze gueago, ta celebratuze Magdalena[en] actioneau²³. Antes bien deslucien, desvistacen, ta illunzen ditu gauza onac murmuracioac.

[4] Ori ez errat[e]ndu S[a]n Victorinoc: *cum discipuli vnguentum illud trecentis denaris divendi potuisse asserunt, quantum mulier illa in vnguentum illud insumpserat, quantumque ex consequenti animi alacritatem, et pietatem erga Christum declarat nobis divinandum relinquit.* Discipulo, edo Apostolo[en] murmurac[en] [cons]isticenda Magdalena[en] liberalidadea, ta J[u]ntam[en]te devocioa, ta Justoa verdadera-

16. E et.

17. Lerro artean Jesu /Christoren ipini du.

18. Horrela: “sup[e]rflua”.

19. Hemen “galdet[e]n-”, baina “galdein” eta “galdain” erabili ohi ditu.

20. Hurrengo paragrafoan dioenez, *San Biktorino* da.

21. Horrela: “-cu[en]”, baina “zue” erabili ohi du.

22. Bigarren r-a autoreak gero erantsia.

23. Horrela: “actione”.

mente, ceñequi ofrecicencio vng[ue]ndu preciosoura bere Maestruari soberanoari. Congue[ue] icusibea oyen discrecioac p[e]rmitituric aimb[e]rre murmuracio Apostolo[en] erte[an], nola g[ue]ldicenda honrraturic, ta celebraturic Maria Mag[da]l[ena], ta arr[en] liberalidadea, ta franqueza engrandezituric, alabaturic, ta estimaturic Jobec, (zaim baita paciencieco spillua²⁴⁾ zazpi garr[en] liburu[an] dio Sp[iritu] S[anduare]n agos, vicigarala ain vici miserablea, ta penosoan, eze ezim vicioni daitubaitaquioq[ue] munduont[an] vicia, baici guerra sangrientoa, eta rebuelta f[ue]rte bat: *militia est vita hominis super terram*. Mundu ont[an] viciar[en] espacio[an], edo egunet[an] da choil preciso nere fielac vicigaicen vigilante, centinel[an] eta sobre acuerdo, cergatic dago mundua enemigo, ta exay astutos beteric, ceñez beti maliciarequi²⁵ procuracendute botacera guizona, cein sortuze izateco Ceruco heredero, ta ala inze Batayu s[a]ndu[an], deseacendute bada erordadien guizon miserablea inf[e]rnoco lazoet[an], ceñetatic erorcenbada, secul[an], eta Jangoico den demboret[an], bada izan[en]da et[e]rnidade guci[an], ezta becataria, eta [con]denatua desenredatuco, eta atraco inf[e]rnoco calabozo obscuro ayetatic, errecc egoinda secula seculor[um] sua, ta garra eguinic, batere²⁶ esperanzaric gave *in inferno nulla est redemptio*.

Erranendu Guizonac: Certaco emancida Jangoicoac bicia emateco ar[en] compañi[an] aimb[e]rre susto, sobr[esalto, ta pena. Rigurosoa da creatu nindueña aimb[e]rre tormentu, ta lucha pasaceco. Dio gure Aita S[a]n Jul[an] [Chri]sostomoc; certas quejac[en] gar[an] ece oyuvavec publicac[en] dutela gure ignora[anci]a, ta nedaddea. *omnis vita nostra tentatio est, quod si omnis vita nostra tentatio est; omnis vita nostra lucrum est.* gure vici gucia t[e]nta[cilo] dela ezim vca-daiteq[ue], baña onengatic quejatu beardugula ezta eguija, baici antes bien, artu beardugu argum[en]tu [con]trarioa: errat[e]ndugula Job Profetareq[ui] gure vicia gucia t[e]ntacioa dela: *militia est hominis vita super terram*, Jaquiñic bada eguiau ceim baita ciertoa, modu ont[an] da gure vicia ganancia, guciada guerra. da gure vicia, gana[nci]a; cergatic baliacen baldimbada guizona Jangoicoaren socorru, eta ar[en] graciarequi, ta merchedequi, garaitucoditu, ta [5] eta vencitucoditu²⁸ demonioar[en] astucia, ta t[e]nta[cilo] guciac, eta orla peleacen bada, atracoda az-quene[an] victorioso ar[en] asechanza, ta lazo gucietatic cerengatic da poderosoago Jangoicoa asisticeco guri, eze demonioa gu garaiceco, eta victoria, badaquii oyen discrecioac trabajacen denac eta garaizen duenac iravast[e]nduela, eta ala eracusten digu Ap[osto]l²⁹ S[a]n Pauloc: peleacen estena bere exay, edo vicioen [con]tra, bapedrac badaquii bere bait[an] cer vicio, edo humore gaisto arquincenden, eta reinazenduen ar[en] vioce[an] eztuela dio Ap[ostolo]lac [con]segituko³⁰ victoria: *non coronabitur &a*. Ona bada non t[e]ntacio, eta guerra onequi solicitac[en]dizquigu victoriac, eta gloriac eta amenazacen gaituela, andic honra-

24. E “spillua” eta bost hitz beherago “Sp[iritu]u”.

25. E bi zatitan partituric: *malicia requi*.

26. E errepikaturik.

27. Beste orrialdearen bukaeran *ta* ipini du eta honen hasieran *eta*, partikula errepikatuz.

28. E “vencitudico-”

29. Hemen “apostol”, baina gehienetan “Apostolo”.

30. Horrela: “[con]segituko”.

cen gaitu ta favorecicen gaitu Manatu zue Jangoicoac³¹ Lot atracediel a Sodoma-co Ciudadetic bere andrearequi, eta alabequi, cergatic abrasatu bearzue suac Ciudadevra bere gle]ndeequi seigarren mandam[en]tuco becatu ciquiñarengatic. Baña manatu ciote Jangoicoac, ezutela cer beiguiratu³² Sodomara. baña nola baita gauza dificil, andrebate veguirace[an] izan ez³³ dadien curiosa izulizue Loten andreac burua bere errira, ezuela casoriceguiten Jangoicoaren mandam[en]tuas. eta apena beguiratuzue, bereala derep[e]nte artuzue gaz pusq[ue] bat[en] figura. *versa est in statuam salis.* ha desgracia! eta cer motivo izanduzue mandam[en]tua ez guardaceco. Doctore batec³⁴ errat[e]ndu. *partim ex dolore rerum amissarum.* icus-tenzue abrasacen cequiola bere echea, ta hacienda gucia, eta ez zeuquela cer ssan, ta cer vestitu, eta dolore onec afilituzue aimb[e]rze, eze acenduric Jangoicoaren izas izulizitue beguiac bere errira.

Zato becatorea: cergatic izulcendiozu aurpegquia Jangoicoari eztitzula³⁵ guardac[en] arr[en] amar mandam[en]tu S[andu]jac? erran[en]didazu, cergatic galduzun hacienda, gosseac zauden. valganos Dios. eztaquezu Jangoicoa zaure Creadorea, ta Erredemptorea, cein baitago cuidac[en] zutas. ala da: bada izanic ala, cergatic eguit[e]ndiozu aimb[e]rze ofle]nsa, cergatic eztuzu irugui bear valore, eta animo sufriceco munduco trabajuec, eta peleaceco zaure vicio infle]rnalen [con]tra. bada beguirazazu, eztaquizula g[ue]rtatu Loten andreati bezela, bada vra gazbiurte baze, zu desdichatue [con]vertituco zara sua, ta garra bezela Ezautuzazu, zure d[ic]ha, ta fortuna dagola seguicelan] zaure Maestro Jesusegui arcenduzula ambat gusto trabajuet[an], nola alivioet[an]. egon-duze gure Jesus necesitatue, eta goseac barucenzela berroguei egunes³⁶, eta ofrecitucio demonioac munduco ondasun guiac, adoracen bazue belorico [6] botatu zue demonioa paseara, eta naiizanduzue padecitu gose, eta trabaju gue-ago, eze ez egui ar[en] gusto, t[e]ntaciont[an] recogizenzela bere Aita Eter-noar[en] amparora. Ea bada becatorea padecicen badituzu t[e]nta[c]loac, ta ne-cesidadeac, eta oyetatic atraceco brindacen badizu ceure esayac proximo lagunaren viziquidia, gusto ciquiñenbat, berzer[en] acienda irevaci gaistoeq[ui] eta trato gaistoequi escacendizut Jesus[en] vioce[an] eztozula em[an] entradaric zeure vioce[an], eta borondate[an], bada enganacenzaitu de-monioac, cergatic da tramposoa, eta ezdiozu emanbear beariric, baicic arri-matu bearduzu Jesusengana, cein baita trabaju, ta pena guci[en] erremediaza-lea eta atraco zaitu trabajetatic, emat[e]ndizula gurpuzaraco mundu ont[an] sustentoa, eta animaraco gr[aci]la, lograceco berze mundu[an] gloria eta orai³⁷ indizquiogun ofle]nsa gucias, escatu beardiogu vioz gucias misericordia. errat[e]ndiogula gucioc Jesu [Chri]sto nere Jauna. *quam mibi, et vobis*

31. Erdiko -goi- silaba laburtu gabe.

32. Hemen “beiguiratu”, zortzi hitz beherago “veguirace[an]” eta hogeita-bost bat hitz beherago “beguiratu-”.

33. Guk ipinia da hitz hau.

34. Lerro arten *Oleastro* ipini du.

35. E “eztitzula”.

36. Lerro artean *esurit* ‘exuriit’.

37. E “ora”, testuetan “orai” eta “orei” erabiltzen direla. Ik. 1. testuko 12. oharra.

3. TESTUA

ERAT¹ JESUS EIJICIENS DAEMONIUM², ET ILLUD ERAT MUTUM.
LUCAS CAP.11

San Clem[en]te Papac errat[e]ndu esribituzuen irugarr[en] liburu[an]: demonioac dirala logreroac bequela, golosoac, ta gaizqui acontentatuac, ta ala eztaudela [con]tentic animac iduguiceas, ta posheiceas, baicic nauditela idgui, ta arrepatu gorpuzac ere, ta ala sarcendirala g[o]rpuzeta, eta onequi dirala Jaun ta Jave animar[en], ta gorpuzar[en]. *amant daemones corporibus hominum inhaerere, ut ipsorum ministerio cupiditates suas explicent, et efficiantur ex integro natura³ daemonum:* ta nola baizego ya demonioa guizonaren bait[an] sarturic, ceuquela guizona isuturic, ta mututuric, cego demonioa sarturic ez Jangoicoaren izac adiceco guizonac, cego isuturic ez obra onac icusteco, ta ceuca mututuric impedim[en]tua ezarcenzuela guizonaoni bere becatu, ta falta, ta miseria guci[an] [con]fesaceco, ta alaber Jangoicoari bere obra on gucie[tan] honrac, graciac, ta alab[a]nzac emateco.

Gure Jesus ona ast[en]da choil de espacio, ta acarres curacen guizona . *erat Iesus.* ta demonioar[en] egosten gorpuz ta animetatic. *eijiciens daemonium.* Onla tratacen gaitu demonioac: nere chatholico fielac, ta da preciso desterrazagun gauren animetatic spiritu infl[r]naleau campora. ta valganos Dios, nola, edo cer modus egoci beardugu, sarturic baldimbadago g[o]rpuze[an], ta arim[an]: nola? nic erran[en] diotet⁴: [con]fesio on batequi; [con]fesacen ditugula becatu guciac aita [con]fesore betegui vrriquim[en]tu, ta dolore andibatequi, [con]cebitu, ta ezauzendugulariq[ue]n⁵, of[e]nditu dugula Jangoicoaren b[o]ndadea infinitoa, eta orrengatic damu andibar arzendugula gaur[en] viozet[an], ta proposito firmebatequi ez berris aren b[o]ndade infinitoa of[e]ndiceco, eta escacendiogula humildade andierequi dauquen gure Jesus maiteac gu creature miserable, ta tristes piedade, ta misericordia, desterrac[en]dugula demonioa Jangoicoaren valim[en]tus, ta auxilios ta graciequi, ta gauren obra onequi. vioz verdaderoatequi. S[a]n Isidoroc Doctoreac errat[e]ndu: *quid prodest spiritus labiorum, ubi cor mortuum est.* Cer aprovechatuco du, Guizonbatec, edo Andrebatec [con]fesatu edo errandezazquier [con]fesore baten oñet[an] bere culpac vioza baldimbadauca arria bezaim gogorra, edo illa, sollic agos [con]fesacen dituela bere becatuac, ta viozes ez, agos errat[e]ndiola [con]fesoreari apartatuco dela occasio charretatic, eta viozes ez, apartatuco dela seigarneco loy ciquinquerietatic izes, p[e]nsam[en]tus, obras, ta desseos, eta viozean Jangoicoac eta berac Jaquin, restitucio eguimbearduela b[e]rzer[en] gauzas, [con]ciencia gaistoarequi⁶ dauquela

1. Goiko bazterreko ezker zokoan 3 zenbakia.
2. E “demonum”. Latinezko okerrak: “demones” 1, 1; “inherere” 1, 1; “demonum” berriz ere 1, 1; “demonium” 1, 2; “demoniorum” 2, 3; “vicit” 2, 3; “demonia” 2, 3; “loquutus” 2, 3; “demonium” 3, 3; “Aaccesserunt” 3, 3; “celo” 3, 3; “aparuerunt” 4, 1; 4, 2; negase” 4, 1; “diferas” 5; “imveniat”5; “præocabatur” 6.
3. E *nau* eta laburgailua bi bokalen gainean. Uste dugu *natura* izan daitekeela.
4. E “diotec”.
5. E “evzazen-”.
6. E “gasistoarequi”.

berceren fama,edo honra, ta hacienda, bada orla vicidena, gaizqui vicida errat[e]ndu S[an] Pauloc, *quod non est ex fide peccatum est*. Gauza bat ez parimba-dauquegu [con]ciencia onarequi [2] ar[en] iduguice[an] becatu eguit[e]ndugula, bida dago gauzavra bere Javeangana dayes, ta oyus errat[e]nduela eztuela ezauzen vra Javetaco, ta nausitaco vg.⁷ alorreco muga eztogola ongi ezarriric, bere lecura naiuela proximo lagunar[en] famac, ta honrac naidutela Ju[an] q[uie]nduzizquiot[en] personaayen gana varcatio, ta satisfaccio ematen zaizquiotela persona of[e]ndituayegui, eta becatoreac oyuavec guioc eztitu adicen, cergicatic dauca demonioac sorturic bere becatuac dirala causa. [Con]fesio onbat eguiteco beardugun dolorea, ta vrriquim[en]tua: definituzue, ta explicatuzue Trid[e]ntinoco [Con]cilio s[a]nduec, cein juntatuze Spiritu Sandu[en] autoridade[an], ta izene[an]⁸, errat[e]nzuela *dolor animi. id est dolor cordis*: [con]fesaceco ongi da preciso, ta necesario, guizon, edo andreac eramodezan dolore damutasun, pena, edo vrriquim[en]tu viozecoa bere becatu propioena⁹ ceñequi of[e]nditu baitu bere Salvadorear[en] bondade infinitoa dignoa amaceco, ta honesiceco mundo gauza guiac baño gueago.

Doloreau da bimodus: bata da [con]tricioa, eta da orei acabatu dutenau pesar andibat arcea Jangoico of[e]ndituas: bercea deicenda atricioa, ta au eguit[e]nda, personabat vrriquicendene[an]¹⁰, ta damu arcenduenen[an] Jangoicoac castigatu dezan inf[e]rnuco penetara seculaco, ez dezon eman Ceruco gloria, privatudezan Cerutic, eta galducean aimble[r]ze ondasum ta d[ic]ha, edo damu arc[en]duela becatuen itsusitasunez bida da monstruet baño abominableago, eta horrorosoago, eta azqueneco doloreau acompaniaturic errandituden motivoequi asquida [con]fesioarequi eta Sacerdote, edo [con]fesore Jaunac ematendion absolucionarequi, eta doloreau beardu f[o]rmatu edo eguiim becatu guien gañ[en] asquida doctrinari:

Egost[e]ndu demonioa [Chris]toc guizonon[en] animatic ta gorpuzatic, ta ast[e]ndira demonioac oyues, ta garasies errat[e]ndutela *in Belcebū daemoniorum principe vincit daemonia*. Milagrovra eguit[e]nduela Belcebur[en] nombre[an]: probac[en]diote [Chris]toc au dela inpossible; cergicatic arrec tratac[en] duela gaizqui eguitera beti guizonari, ta [Chris]toc ongi enfin arracio¹¹ guiac reducidirade [Chris]toc tratacenduela, ta solicitacen duela gure arim[en] salvaciona, eta demonioac gure seculaco [con]denacioa. eta egociric [Chris]toc demonioa, al inst[a]nte minzatuze guizon mudua *locutus est mutus*, Ó balire erremedioac oimb[e]rze mudoendaco mudoac¹² dirade errico buruac, edo car-gudunac issilcen baituste errico desordenac, ta vicioac, eta ezpaituste castigac[en], mutua da Errico Apeza clamacen, ta predicacen ez duena Puebloko becatu publicoen [con]tra [3] mutua da [con]fesorea p[e]rmiticendiona penit[e]nteari occasio charra, mutua da en¹³ Aita, eta Ama, castigacen ezdue-

7. Latinezko *verbi gratia*.

8. E. "izane[an]".

9. Ik. "proprioies" 1. testuko 2. orrialdeko 1. paragrafoan.

10. E "vrriquiricen-".

11. E "aracio".

12. E "mudoada".

13. Beharbada ere ipini beharrean.

